BESTELAKO XEDAPENAK

HERRIZAINGO, JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

5300

AGINDUA, 2012ko irailaren 19koa, Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, «Fundación Eresbil-Archivo Vasco de la Música / Eresbil-Musikaren Euskal Artxiboa Fundazioa» fundazioaren eratzea Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko dena.

«Fundación Eresbil-Archivo Vasco de la Música / Eresbil-Musikaren Euskal Artxiboa Fundazioa» fundazioaren eratzea Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko eskatuz aurkeztutako espedientea ikusi eta aztertu da. Hona hemen

AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2011ko maiatzaren 19an Justizia eta Herri Administrazio Sailean sartu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan «Fundación Eresbil-Archivo Vasco de la Música / Eresbil-Musikaren Euskal Artxiboa Fundazioa» inskribatzeko eskaria; aipatu fundazioa, «Coral Andra Mari Abesbatza» abesbatzak sortu zuen 2011ko martxoaren 15ean.

Bigarrena.– Eratze-eskritura publikoaren seigarren xedapenean, eskriturari sortze-gutunaren izaera ematen zaio, eta hemezortzi hilabeteko epea dute pertsona fisiko edo juridikoek nahi dutena erants dezaten fundatzaile gisa.

Aipatu seigarren xedapena aplikatuz, eta ezarritako epean, Gipuzkoako Foru Aldundia, Errenteriako Udala eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa fundatzaile gisa gehitu zaizkio.

Hirugarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Aholku Batzordeko Batzorde Teknikoa bildu zen fundazioaren helburuak zilegi eta guztiontzako onuragarri direla egiaztatzeko. 2011ko uztailaren 14an, fundazioa erregistroan inskribatzearen aldeko txostena eman zuen.

Laugarrena.– Fundazioen Erregistroak aginduzko agiri osagarriak eskatu, eta agiriok 2012ko otsailaren 29an eta abuztuaren 9an aurkeztu ziren aipatu erregistroan.

Bosgarrena.– Fundazioaren xedea, bere estatutuen 3. artikuluan xedatu bezala, Musika Ondarea ikertu, bildu, kontserbatu eta zabaltzea da, eta, bereziki, Euskal Konpositoreen ekoizpena.

Seigarrena.– Estatutuetako 5. eta 6. artikuluetan xedatutakoaren arabera, fundazioaren egoitza Errenterian dago (Alfontso XI, 2, Gipuzkoa), eta fundazioak gehienbat Euskal Autonomia Erkidegoan garatzen ditu bere jarduerak.

Zazpigarrena.– Hasierako dotazioa 31.000 eurokoa da, eta «Coral Andra Mari Abesbatza» abesbatzak egin du ekarpena.

Eratze-eskritura eman eta gero, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Errenteriako Udalak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, kide egin diren fundatzaile direnez, eman dituzte, fundazioaren dotazio gisa, «Patronato Euskal Ereslarien Bilduma- Archivo de Compositores Vascos, Eresbil» desagertuaren aktiboak eta pasiboak –ondare eskualdaketa kolektibo oso

eta zatiezina–, Blanca Palacios Guillén notarioaren aurrean, 2012ko uztailaren 17ko eskritura publikoan zehaztutako ehunekoekin bat (1.275 protokolo-zk).

Zortzigarrena.– Patronatuari dagokio fundazioa ordezkatzea, administratzea eta gobernatzea. Patronatuko kideek dohainik beteko dituzte beren egitekoak, hala baitago aurreikusita fundazioaren estatutuetan.

Bederatzigarrena.– Patronatuko kideak, hasieran, fundazioa eratzeko eskrituran ezartzen denez, hauek izango dira:

Kargua	Patronatuko kidea	Indarraldia
Lehendakaria:	Euskal Autonomia Erkidegoa	Mugagabea
1. Lehendakariordea	Gipuzkoako Foru Aldundia	Mugagabea
2. Lehendakariordea:	Errenteriako udala	Mugagabea
Idazkaria:	«Coral Andra Mari Abesbatza»	Mugagabea

Denek onartu dituzte beren karguak, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 12.1 artikuluan ezarritako moduetariko bat erabiliz.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari dagokio Fundazioaren eraketa inskribatzeko espedientea agindu bidez ebaztea. Hala agintzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 3.1 artikuluan, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren 4.1.a) artikuluan, eta Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretua –Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailei eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzeari buruzko irailaren 2ko 13/2012 Dekretuaren bidez aldatua–.

Bigarrena.– Hartarako legitimazioa daukan pertsona batek sustatu du espedientea. Espedienteari, bestalde, funtsezkotzat jotzen diren datuak eta agiriak erantsi zaizkio, eta bereziki bete da Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 6., 7. eta 9. artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 36., 37., 38. eta 39. artikuluetan ezarritakoa. Aplikatzekoak diren legeetan eta erregelamenduetan ezarritakoarekin bat etorrita eratu da fundazioa.

Ikusirik aipatutako arauak eta, oro har, kasu honetan aplikatu beharreko gainerako arauak, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Honako hau Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko agintzea, egun honetan eta erregistro-zenbaki honekin: F-343; Errenteriako «Fundación Eresbil-Archivo Vasco de la Música/ Eresbil-Musikaren Euskal Artxiboa Fundazioa», erakundearen eraketa, eta bai Patronatuaren hasierako osaera ere. Osaera horren barruko kideak bederatzigarren aurrekarian agertzen dira, eta esan behar da ezen, espresuki onartu dituztela euren karguak, 2011ko martxoaren 15ean, José Manuel Domingo Serrano notarioaren aurrean

(260 protokolo-zk.) egiletsitako eskritura publikoko zehaztapenekin bat etorriz –2012ko uztailaren 17an, Blanca Palacios Guillén notarioaren aurrean egiletsitako eskritura publikoaren bidez osatua (1.275 protokolo-zk.)–.

Bigarrena.– Fundazio hori, bere helburuak kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroko 3. sekzioan sailkatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 2.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea eta fundazioari bidaltzea.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko irailaren 19a.

Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.